

AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI HLHIren KIROL PROIEKTUA



2017-VI-29an Klaustroan eta O.O.Gan onartua

IKASTOLAREN KIROL PROIEKTUA (IKP) AURKIBIDEA

1.- INGURUAREN AZTERKETA	2. orr
1.1.- Ingurua	2. orr
1.1.1 Inguruaren azterketa	2. orr
1.1.2 Araudia eta funtzioak	2. orr
1.2.- Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai HLHI	4. orr
1.2.1 Gaur egungo kirol eskaintza (eskola kirolekoa)	4. orr
1.2.2 Baliabide materialak	4. orr
1.2.3 Giza baliabideak	5. orr
1.2.4 Baliabide ekonomikoak	5. orr
 2.- IDENTITATE PRINTZPIOAK	 5. orr
 3.- XEDEAK eta HELBURUAK	 6. orr
 4.- ESKOLA KIROLA	 7. orr
4.1. Funtzionamendua	7. orr
 5.- EBALUAZIOA	 9. orr
1. Ebaluazioaren kronograma	9. orr
2. Ebaluazio adierazleak	9. orr
3. Proposatutako planen ebaluazioa	9. orr
 6.- HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEA	 10. orr
 7.- ANEXOAK	 10. orr
- Kirol plana	11. orr
- Komunikazio plana	13. orr
- Ekonomia plana	14. orr

1.- INGURUAREN AZTERKETA.

1.1. Ingurua.

1.1.1. Inguruaren azterketa.

- a) Azken ikasturteetan, Ikastolan batz besterik, urtero 830 ikasle inguruan daude matrikulatuta eta hauek 430 ikasle inguruk dute Ikastolak eskaintzen duen eskola kirolean parte hartzeko aukera, hau da, LH 2. Mailatik LH 6. mailara.
- b) Ikastolan dugun kirol eskaintza honako hau da: saski-baloia, futbola, atletismoa, txirrindularitza, multikirola eta esku pilota. Gainera, herrian klub desberdinak ditugu: Izarraitz Igeri Elkartea, Judo Klub Kimura, Azpeitiko Karate Elkartea, Gimnasia Erritmikoa, Iraurgi Saski Baloia, Lagun-Onak Futbol Elkartea, Lagun-Onak Txirrindulari Elkartea, Xeye taldea (atletismoa) eta Lagun-Onak Mendi Elkartea.
Baita ere herrian honako eskaintza dago: Juan de Antxieta Musika Eskola, Itsasi eta Sahatsa Dantza Taldeak, Arte eta Diseinu Eskola, bi Ludoteka, etab...

1.1.2. Araudia eta funtzioak.

Foru Aldundiaren kirol arauen eta Kirol Proiektu honen arabera arautzen da Eskola Kirola.

1.1.2.1. Eskola kirolarekin lotuta indarrean dagoen legeria.

1. Euskal Autonomi Erkidegoan.

1. Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legea.
2. Uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua, eskola kirolari buruzkoa
3. Euskal Eskola Publikoaren Legea.

2. Lurraldeari dagokiona (Gipuzkoako Foru Aldundia).

a) Urteko arautegia.

- Eskola Kiroleko jardueren urteko programa onartzen duen Foru Agindua.
- Eskola kiroleko urteko programako jarduerak aurrera eramatean gertatu ohi diren gorabehera berezi batzuk konponduko dituen prozedura arautzen duen Foru Agindua.

b) Denboraz kanpoko legeria.

- Eskola ikasleentzako kirol teknifikazioko unitateei baimena ematea arautzen duen Foru Agindua.
- Saskibaloia, eskubaloia, futbola, areto futbola eta errugbiko hastapeneko unitateak arautzen dituen 69/2008 Foru Agindua.
- Eskola Kiroleko programaren barruko baimenak emateko prozedura arautzen duen 145/2009 Foru Agindua.
- Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua sortzeari, osatzeari eta funtzionamendu erregimenari buruzko 39/1998 Foru Agindua.
- Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluaren funtzionamendu araudia onartzen duen Foru Agindua.

3. Orientatze aldera: Kirolaren Euskal Plana.

2003-2007 Kirolaren Euskal Planak dio eskola kirola dela Kirolaren Euskal Ereduak dituen lau jarduera motetako bat. Plan horretantxe zehazten dira Eskola Kirolaren Ereduaren edukia, helburuak eta ezarpenerako printzipioak.

Eskolako kirolaren helburu nagusia izango da haur kirol-egilearen hezkuntza-garapena osatzea eta kirolari bakoitzaren banakako beharrianak asebetetzea. Hala, eskola kirolak haurren heziketa integrala bilatuko du, beren sarbidea eta parte hartzea bermatuz berdintasunez eta sexu-estereotipo eta roletatik kanpo; haurren nortasuna era harmoniatsuan garatzea bilatuko du, bai eta geroko adinetan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea eta bizimodu osasuntsua eramatea bermatuko duten baldintza fisiko eta kirol ohitura batzuk eskuratzea ere.

1.1.2.2. Erakunde komunen eskuduntzak eskola kirolean.

1. Eusko Jaurlaritza.

a) Eskolako kirolaren oinarriak eta printzipioak finkatzeko eskumena, bai eta kirol diziplinako araubidea eta lehiaketak finkatzekoa ere.

2. Foru Aldundiak.

a) Araudiak garatu eta gauzatu; azken hori udal administrazioekin koordinatuta, autonomia erkidegoaren eskola kirolari buruzko araudia aintzat harturik betiere.

3. Udalerriak.

a) Lurralde historikoetako aldundiek onarturiko eskola kiroleko programak gauzatu aldundiekin koordinatuta.

b) Udalerriek dagokie lurralde historikoetako aldundiek onarturiko eskola kiroleko programak gauzatzea aldundiekin koordinatuta; kirol jarduerak egiteko instalazioak uztea, besteak beste.

4. Federazioak.

Federazioen ardura izango da eskola kiroleko jardueretarako laguntza teknikoa ematea; horretarako, eskola kiroleko programak antolatzen eta gauzatzen parte hartuko nahiz lagunduko du, aldez aurretik foru aldundiarekin adostuta. Akordio horiek lankidetzan hitzarmenen bidez formalizatuko dira.

Laguntza teknikotzat hartzen da alderdi tekniko guztien zuzendaritza, koordinazioa eta jarraipena, jarduera edozein dela ere.

5. Klubak.

Kirol klubek ikastetxeekin batera ari beharko lukete kirol irakaskuntzan, parte hartzeko lehentasunezko egitura dira 12-18 urte bitartean, eta kirol errendimenduaren nahiz teknifikazioaren oinarriko guneak dira. Ondorioz, kontzeptu guztiak- bai heziketakoak bai tekniko-taktikoak, ikastetxeko partaideen adinaren eta mailaren arabera, 0-11 urte bitartekoetan- kudeatu, planifikatu eta administratu beharko lituzkete. Beraz, esan daiteke kirol klubak, kirol sozietate anonimoak eta kirol taldeak direla erreferentziazko markoak errendimenduan hasteko eta etorkizuneko kirolariak identifikatzeko ibilbideetan.

6. Ikastetxeak.

Ikastetxeak eta haien ingurua (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) dira 0-11 urte bitartean kirol jardueretan parte hartzeko gune oinarrizkoa. Beraz, kontzeptu guztiak, bai heziketakoak bai tekniko-taktikoak, kudeatu, planifikatu eta administratu beharko lituzkete. Beraz, ikastetxeak dira erreferentziazko markoa kirol partaidetzako ibilbidean sartzen diren jardueretan parte hartzeko, eta bere gain hartu beharko lituzke heziketa, antolakuntza eta administrazio lana.

1.2. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai HLHI.**1.2.1. Gaur egungo kirol eskaintza.****a) Modalitateak eta mailak.**

Ikastolan egiten den kirol eskaintza eta parte hartzaileen kopuruaren ezagutza bat izateko, honako hauek izan dira azken ikasturteetan gutxi gora-beherako parte hartzeak: gure ikasle batzuk, baita ere, parte hartzen dute: igeriketan, judoan, karatean eta gimnasia erritmikoan.

	NEKAK	MUTILAK	GUZTIRA
MULTIKIROLA			
2. MAILA	22	35	57
ESKOLA KIROLA			
3. MAILA	27	31	58
4. MAILA	8	36	44
5. MAILA	24	37	61
6. MAILA	24	24	48

b) Ikastolaz kanpoko bestelako eskaintza.

Azkoiti eta Azpeitiko udalak, eskola kirol mahaiarekin, antolatutako beste kirol jarduera batzuetan parte hartzeko aukera dute gure ikasleek: Gabonetako 3 x 3, igeriketako bi txapelketa, bizikleta irteera, ekaineko 3 x 3 eta Azkoiti, Sanjuandegi eta Urrestillako krosak, mendi irteerak, esku pilota, herri kirolak, gimnasia erritmikoa. Parte hartu ahal izateko ikastetxeetako **fitxa eskolarra** behar izaten dute.

1.2.2. Baliabide materialak.**a) Ikastolako kirol instalazioak.**

Eskola Kirolerako Perdillegi 2ko eraikinaren inguruan dauden instalazioak erabiltzen dira, hau da, jolastokian eta estalitako frontoian daudenak. Bertan bi futbol kanpo eta hiru saski baloi kanpo daude, esku pilotan aritzeko frontoia eta atletismo pista bat.


Perdillegin, Urola Ikastolako eraikinaren inguruan, dauden instalazioak ere eskola kirolerako erabiltzen dira: frontoian, hiru saski baloi kanpo, futbol kanpo bat eta bi frontoi daude eta, jolastokian, berriz, bi futbol kanpo daude.

b) Instalazioen ordutegiak eta erabilgarritasuna:

EGUNAK	INSTALAZIOAK	ORDUTEGIA
Astelehenetik -ostiralera	Perdilegiko instalazioak	17:00-20:00
	Urola Ikastolako jolastokia	
	Urola Ikastolako frontoia	17:00-19:00
Larunbatean	Perdilegiko instalazioak	08:30-13:30
	Urola Ikastolako jolastokia eta frontoia	

1.2.3. Giza baliabideak

a) Organigrama.



1.2.4. Baliabide ekonomikoak

Ekonomi planean adierazten dira.

2.- IDENTITATE PRINTZIOAK

2.1. Ikastolaren zeregina eta irudikapena

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai HLHIren zeregina Haur eta Lehen Hezkuntzako heziketa integrala eskainiz, pertsonak osotasunean heztea da. Euskal kultura eta hizkuntza normalizazioa bultzatuz, elkarbizitzaren baloreetan oinarrituz, aniztasuna kontutan izanik eta ikasketa prestakuntza on bat eskainiz ikasleen konpetentziak garatzea, auto-estimua sendotzea eta espirtu kritikoa bultzatzea nahi dugu.

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai HLHIren irudikapena euskara, teknologia nahiz kultura arloan ereduigarri izanez, ondo egindako lana baloratuz, proiektu erakargarriak bultzatuz eta familiekin harreman estuak garatuz, herriko irakaskuntzan erreferente izatea da.

2.2. Baloreak

1. Euskara da ikastolako hizkuntza. Euskal kultura transmititu, garatu eta sustatzen duen erakundea gara eta ingurune eleanitz eta kulturantz integratzen duena.
2. Ikaslea da, bere osotasunean, gure hezkuntza prozesuan funtsezkoena. Alderdi emozionalak eta pertsona izaera errespetatuz, ikasle bakoitzaren gaitasun intelektualak garatuz eta norberaren eboluziora egokituz, ikasketa prozesuaz arduratzen gara.
3. Erakunde pluralista, irekia, inklusiboa, solidarioa, hezkidetzalea, ez diskriminatzailea eta balore demokratikoen bultzatzailea gara.

4. Guraso, ikasle, irakasle eta ez-irakasleek, denek parte aktiboa hartzen dugu ikastolaren eguneroko funtzionamenduan.
5. Kudeaketa egitura gardena erabiltzen dugu, partaidetza, elkarrizketa eta komunikazio on bat oinarri ditugularik.
6. Egungo gizartean ematen diren aldaketei erantzun bateratua eman ahal izateko, elkarlana eta herriko zentro publikoen arteko koordinazioa burutzen (lantzen, bultzatzen) dugu.
7. Gaur egungo berrikuntza pedagogiko, metodologiko eta teknologikoetan oinarritutako kalitatezko hezkuntza eskaintzen dugu.

2.2.1. Gorputz Hezkuntza arloa.

Ikastolako Hezkuntza Proiektuan, Gorputz Hezkuntza arloaren inguruan, honako hau zehazten da:

- Metodologia:

Lehen Hezkuntzan, batez ere irakasleak estimulua erakustea (keinua, agindua) eta ikasleek modu egokian erantzutea. Teknikarik erabiliena erakusketa eta imitazioa dugu eta ikasleen aldetik ez dago inolako ekimenik. Zerbait irakasteko ereduak erabiltzen dira eta eredu esanguratsu horietan oinarritzen da hain zuzen irakaskuntza.

Ikasleriak irakaslearen aginduen betetzailerik hutsa ez du izan behar eta gainera agindu hauen zergatiak eta zertarako diren ulertu behar du.

Irakasleriak dinamizatzailerik izan behar du eta umeen posibilitate berrien aurkikuntzarako gidatzaile.

Metodologia emankorra izateko zenbait aspektu kontutan izan behar dira. Ikasleen gaitasunetara egokitutako ariketak proposatu behar dira, ariketak esfortzu eta erronka bat izan behar du. Irakasleak estimulatu, iradokitu, arriskua kontrolatu, ideiak eta aukerak eman,... baina ikasleriak akzio motrizaren protagonista izaten jakin behar du.

Ikasleriarentzat motibazio berezia suposatzen du dituen ikaskuntza motrizak horrenbeste maite eta berarengan konstantea den jokoan aplikatzea. Hau dela eta, alderdi ludikoak oinarrizko papera izango du irakaskuntza ikaskuntza prozesuan.

Klaseetako organizazioan garrantzi handikoa da itzaroteko tartek ahalik eta gutxien ematea, horretarako material nahikorekin eta ezberdinarekin kontatu behar dugu. Esfortzua eskatzen duten aktibitateetan, errekueratze denborak aktibitatearen arabera moldatu behar dira.

Gorputz Hezkuntzako metodologiak printzipio hauek izan behar ditu kontutan.

3.- XEDEAK eta HELBURUAK

Xedeak

- Ikas kirolean ez da arraza ez sexu diskriminaziorik egingo.
- Bere gorputzaren ezagutza eta trebatzea landuko dira.
- Ikaslearen sentimenduak, pentsaera eta izaera errespetatuko da.

Helburuak

- Kirol ezberdinak ezagutzeko aukera ematea eta beraien praktikan trebatzen hastea.
- Kirola eginez ongi pasatu (irabaziz, galduz...) eta harremanak egiteko erraztasuna ematea.
- Kirola eginez pertsona bezala hezi eta garatzea: ardura, errespetua, lagunarekiko begirunea... bultzatuz.

4.- ESKOLA KIROLA.

Eskola Kirola 3. mailatik 6. maila arte eskaintzen da.

Bestalde, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai HLHI n 2. Mailako neska-mutilei multikiroleko eskaintza egiten zaie

4.1. FUNTZIONAMENDUA.

a) Ikasleen parte hartzea.

- LH 3, 4, 5 eta 6ko ikasle guztiek eskola kirola egingo dute eta ekintza denetan parte hartu behar dute..
- Haez aparte antolatzen diren jardueretan izena emateko, ikasleei ohar bidez adieraziko zaie.

b) Taldeak egiteko irizpideak.

Talde denak zozketa bidez egingo dira.

Kasu bereziren bat gertatuz gero, aztertu eta kontutan hartuko da taldeak egiteko momentuan.

c) Entrenamenduak.

Ikastolak ipintzen ditu entrenatzeko egun eta orduak, ahal den ikasle gehienekin eta hezitzaileekin adostuta. Astean ordu beteko bi saio egingo dituzte.

d) Kirol batzordea.

Partaideak: Zuzendaria, kirol arduraduna, koordinatzailea eta guraso elkarte kidea.

Betebeharrak:

1. Eskola kirolaren ardura du. Horretarako, antolaketa gauzatu du, arazoak konpontzen saiatu du eta hobekuntzak proposatu ditu.
2. Ikasturte bukaeran egingo den bileran, bukatu den ikasturteko, eskola kirolaren balorazioa eta memoria egingo ditu eta ikasturte berrirako dauden baliabideen azterketa egin eta urteko plana prestatu du.
3. Ikasturtean zehar irailean, abenduan, martxoan eta maiatzean elkartuko da gutxienez. Horrez aparte, beharra dagoela ikusten denean ezohiko bilera egingo du, eta arazoa konpontzeko zailtasunak ikusiz gero, Ordezkaritza Organo Gorenarengana zuzenduko da.
4. Kirol Batzordeak, hezitzaileak kirol arloan prestakuntza jasotzea bultzatu du.

e) Kirol koordinatzailea.

Profila:

- ✓ Koordinatzailea, Baikara guraso elkarten federazioaren bitartez kontratatu dago. 10 hilabeteko kontratua egiten zaio
- ✓ Ikastolarekin lotura izan edo gaur egun duen pertsona.
- ✓ Hezkuntza edo kirolarekin loturiko ikasketak izan beharko ditu.

Betebeharrak:

- ✓ Batzordeari begira:
 - Kirol jardueri buruzko informazioa ematea.
 - Erabakiak betetzen direla egiaztatzea.
 - Ordutegiak, espazioak eta materialak kudeatzea.
 - Monitoreak aukeratzea.
 - Monitoreen eginkizunak aztertu eta horien plangintza egitea.

- ✓ Monitoreei begira:
 - Behar duten formazioa bideratzea, edozein arazoren aurrean laguntza eskaintzea, beraien betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea.

- ✓ Ikasleei eta familiei begira:
 - Eduki ditzaketen arazoak konpontzen laguntzea, arazoen aurrean beraiekin hitz egitea.

- ✓ Ikastolari begira:
 - Bere baloreak transmititzen jakitea, kezka eta arazoen aurrean segurtasuna ematea.

f) Kirol hezitzaileen ardurak.

Profila:

- ✓ Euskaraz hitz egin behar du.
- ✓ Ikastolako ikasleen gurasoak izan daitezke.
- ✓ Gurasoa ez bada, ikastolarekin erlazioaren bat duen edo izan duena izango da: ikasle ohia, irakaslea ...
- ✓ Ikastolarekin erlazorik ez duen pertsona bat aukeratzekotan, beti ere kirol munduan murgilduta dagoen norbait izan beharko du: SHEE, Gorputz Hezkuntzako irakaslea, Kirol monitore titulazioa edo antzekorik duena ...
- ✓ Gutxienez, 16 urte izango ditu.

Betebeharrak:

- ✓ Astean, bere taldearekin kirola egiteko konpromisoa izango du.
- ✓ Astean zehar bi entrenamendu egingo ditu
- ✓ Larunbatetan, taldeak partidua duenean, taldearen ardura berea izango da.
- ✓ Entrenamenduetara, edota partidura joateko zailtasunak baditu, kirol koordinatzaileari adierazi behar dio, honek beste arduradun bat izendatu dezan.
- ✓ Puntualtasuna ezinbestekoa da.
- ✓ Entrenamenduetara arropa egokiarekin joaten saiatuko da.
- ✓ Ikasturte bukaeran egingo den bileran, apirila edo maiatzean, parte hartuko dute eskola kirolaren inguruan egingo den balorazioan bere partaidetza ezinbestekoa delako.
- ✓ Sormena eta irudimena izan.
- ✓ Koherentea, justua, zintzoa,

- ✓ Motibazioa sortu.
- ✓ Kirolarien inplikazioa maila areagotu eta horrela errendimendua hobetu; jokalarien erritmoak errespetatu.
- ✓ Zuzentzeko aukera eman eta errepikatzea, ikaskuntza bultzatzen duelako.
- ✓ Erronkak argiak eta zehatzak.
- ✓ Erakusten zaiona, kirolariak zertarako erabiliko duen ulertu behar du.
- ✓ Helburuak zehaztu, zer nahi den erakutsi jakiteko.
- ✓ Jolas bakoitzak, garatu behar den eduki motaren arabera erabili beharko da (taktikoa, teknikoa, arauak,...)
- ✓ Jolasak bultzatu behar ditu: lankidetzak, besteei laguntzeko jarrera eta ahalegintzeko jarrera.
- ✓ Argi, labur eta zehatz, eman informazioa.
- ✓ Kirolari batek akats bat egiten duela edo portaera okerra ikustean, berarekin hitz egin behar dugu.

g) Umeen ardurak.

- ✓ Konpromisoa entrenatzeko eta partiduetara azaltzeko.
- ✓ Ezin badu azaldu, arduradun bati esan beharko dio.
- ✓ Errespetua taldekideei.
- ✓ Errespetua hezitzaileari.
- ✓ Errespetua aurkariei.
- ✓ Errespetua epaileari.
- ✓ Jarrera desegokiren bat gertatzen bada, ondorio bat izango du.

h) Ume edo hezitzaileen jarrera desegokiak daudenean.

Eskola Kirol Kontseilutik, gertakari baten berririk baldin badago, Kirol Batzordea bildu eta gertaturikoa aztertuko du, eta horren arabera erabaki bat hartuko du.

Umeren batek horrelako gertakari batean parte hartzen badu, bai entrenamendu edo partiduren batean, Hezitzaileak antzerako erabaki bat hartzeko gaitasun eta babes osoa izango du.

5.- EBALUAZIOA

Urtero, IKParen ebaluazioa egingo da, jarduera plan desberdinen jarraipena eginez ondorengo puntuak kontutan hartuz:

1. Ebaluazioaren kronograma.
2. Ebaluazio adierazleak:
 - a. Partaide kopurua.
 - b. Ikasturtean zehar izan diren altak eta bajak (jarraipen adierazlea)
 - c. Kirol emaitzak.
 - d. Eskainitako jardueren kopurua.
 - e. Jasotako kexak.
3. Proposatutako planen ebaluazioa.
 - a. Heziketa ikastaroen kopurua.
 - b. Balorazio ekonomikoa.
 - c. Balorazio metodologikoa.

6.- HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN PARTE HARTZEA

IKPak bere helburuak bete ditzan, beharrezkoa da bere osaketan hezkuntza komunitate guztiak parte hartzea. Hori dela eta, IKPa Organo Gorenak onartuko du.

7.- ANEXOAK

- KIROI PLANA
- KOMUNIKAZIO PLANA
- EKONOMIA PLANA

KIROL PLANA		
HILABETEA	EGINBEHARREKOAK / EKINTZAK	ARDURADUNA
IRAILA	1. Maila guztietako zerrenda eskatu eta Foru Aldundiko aplikazioan sartu <ul style="list-style-type: none"> • Izen-emate orria banatu eta jaso • kirol desberdinetako taldeak sortu • Jantziak banatu • Monitoreekin bilera antolatu, metodologia eta helburuak azaltzeko • Umeen taldeak sortu 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak • Kirol Batzordeak • Koordinatzaileak • Koordinatzaileak • Koordinatzaileak • Kirol Batzordeak
IRAILA-EKAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Asteartetan Azkoitia eta Azpeitia Kirol Kontseiluko bileretara joan • Larunbateko ekintzak antolatu • Entrenatzaileei jarraipena 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak
URRIA	<ul style="list-style-type: none"> • Jokalari guztiak Foru Aldundiko aplikazioan sartu 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak
ABENDUA	<ul style="list-style-type: none"> • Saski baloiko finalak • Futbol taldeak antolatu • Txekeak prestatu eta banatu • Joan-etorrien dirua jaso 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak • Koordinatzaileak • Koordinatzaileak eta Guraso Elkarteak • Guraso Elkarteak
URTARRILA	<ul style="list-style-type: none"> • Areto eta futbol txapelketa hasi 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak
MARTXOA	<ul style="list-style-type: none"> • Izarraitz igeri txapelketa • Multikirola 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak

APIRILA	<ul style="list-style-type: none"> • Material eskaera egin • Txekak prestatu eta banatu 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak • Koordinatzaileak eta Guraso Elkartek
MAIATZA	<ul style="list-style-type: none"> • Futboleko finalak • Gipuzkoako txapelketak • Jantziak jaso • Memoria prestatu Udalarako 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzaileak • Koordinatzaileak • Koordinatzaileak • Kirol Batzordeak
EKAINA	<ul style="list-style-type: none"> • E1 programa aurkeztu Udalan • Ikasturteko balorazioa egin • Urteko egutegia eskatu talde guztiei (Karatea, gimnasia, igeriketa,...) • Urtean zehar egindako joan-etorri guztiak Foru Aldundiko aplikazioan sartu 	<ul style="list-style-type: none"> • Kirol Batzordeak • Kirol Batzordeak • Koordinatzaileak • Koordinatzaileak

<u>KOMUNIKAZIO PLANA</u>			
HILABETEA	EGINBEHARREKOA /EKINTZA	NOLA	ARDURADUNA
IRAILA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeko helburuak eta kirol planaren laburpena • Izen emate orria 	<ul style="list-style-type: none"> • Gelatan eta tutoreen bidez • Gelatan eta tutoreen bidez 	<ul style="list-style-type: none"> • Kirol Batzordea • Kirol Batzordea
IRAILA-MAIATZA	<ul style="list-style-type: none"> • Oharrak eta larunbateko ekintzak • Entrenatzaileei oharrak • Gurasoekin harremanak 	<ul style="list-style-type: none"> • Kiroletarako dauden kortxoetan, korreo elektronikoz eta ahoz entrenamenduetan • Ahoz • Korreo elektronikoz eta ahoz entrenamenduetan 	<ul style="list-style-type: none"> • Kirol Batzordeak, entrenatzaileek eta koordinatzaileak • Koordinatzaileak • Kirol Batzordeak, koordinatzaileak eta entrenatzaileak
EKAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoei Eskola Kirolari buruz informazioa eman 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastolan bilera 	<ul style="list-style-type: none"> • Kirol Batzordeak

<u>EKONOMIA PLANA</u>		
HILABETEA	DIRU-SARRERAK	IRTEERA-GASTUAK
URRIA	Foru Aldundiko materiala jaso ikastolan	
ABENDUA	Foru Aldundia: joan-etorrien ordainketa	Entrenatzaileei ordainketa: 1. Zatia
MARTXOA	FAMILIEN APORTAZIOA: KUOTAK 2016/17 ikasturtea Eskola-kiroleko kuota: 15 euro ikasleko/urteko Multikirola LH2: 5 euro ikasleko/urteko (MARTXOA, APIRILA, MAIATZA)	
APIRILA	Foru Aldundira material eskaera	
MAIATZA		Entrenatzaileei ordainketa: 2. Zatia
EKAINA	E1-Progama: Foru Aldundia eta Azpeitiko Udalaren arteko diru-laguntzaren ordainketa	Afaria kirol komisioa eta guraso entrenatzaileak irailetik ekainera: kirol koordinatzailearen soldata